kultura digitala

softwarea euskaraz

komunikabideak

sare sozialak

musika

2.0

apps

xare

Euskal kultura digitalaren azoka

egile eskubideak

zinema

parte-hartzea

Euskal kultura digitalaren azoka

BETA edizioa

Azaroak 23-24.
Kursaal, Donostia

www.xare.eu

Egitaraua

XARE euskararen erabilera informazioaren teknologia berrietan (IKT) sustatu nahi duen egitasmoa da. Eta horren bidez euskal kultura digitala suspertu.

Gaur egun, IKTek garrantzi handia dute eguneroko bizimoduan. Beraien erabilera esparru guztietan aldaketa sakonak eragiten ari da, salbuespenik gabe. IKT horien erabiltzaile fidelenak gazteak direla jakinik, IKTen alorrean eta kultura digitalean oro har, euskararen erabilera sustatzea ezinbestekoa da. Teknologia berrien esparruan euskarak urrats garrantzitsuak eman dituen arren, euskarazko IKTen erabilera ez da izan zitekeena, ez baita eskuragarri dagoen eskaintza oparoa ezagutzen. Gabezi horri aurre egiten laguntzeko xedea du Xare ekimenak.

Honezkero euskaraz eskuragarri dagoen softwarea ezagutarazi eta bere erabilpena bultzatu nahi dugu. Ordenagailu zein mugikorretan euskarazko sistema eragile eta softwarea instalatu eta erabiltzeko ohitura sortu eta indartu nahi dugu, hiritarrentzat erreferentzia gune bat sortuz, **www.xare.eu**. Bertan software katalogo osatu eta eguneratua martxan jarriko dugu datozen hilabeteetan. Horretaz gain, IKTen alorrean euskaraz lan egiten duten eragile eta egitasmoen elkargune eta erakusleihoa izan nahi dugu.

Donostiako Kursaalen azaroaren 23 eta 24an antolatu dugun azoka XARE egitasmoaren aurkezpena da. Bi egunez, IKTekin loturiko egitarau oparoaz euskaraz gozatzeko aukera egongo da. Azoka amaitu ondoren egitasmoak jarraipena edukiko du, nagusiki sarean.

Disfrutatu azokaz.

#zabaldu XAREa!

Aurkibidea

Ongi etorri ekitaldia 10

Mahai inguruak eta hitzaldiak 11

Multimedia instalazioak 20

E-gitasmoak 25

Ikus-entzunezkoak 29

Ikastaroak 33

Robot erakustaldia 39

Standak 40

XARE zuzenean sarean 41

Musika 43



xare
Euskal kultura digitalaren azoka

XARE azokako planoa

Ordutegia / Ostirala 12.11.23

	0 Aretoa	1 Aretoa	2 Aretoa	3 Aretoa	4 Aretoa	6-7 Aretoa	8-9 Aretoa
11:00 - 11:30	Standak	Ongi etorria	Reactable				
11:30 - 12:00	DJ emanaldia	Musika digitala - hitzaldia	Twitter grafikoa / soinu twitterra	Bilaketa eleanitza, Berbatek	Soinu edizio digital tailerra (1/2)		Install party
12:00 - 12:30	Mapping		Fotoma(ra)toia	.eu, EITB app		Ordenagailua euskaratu	
12:30 - 13:00	Berria.info		Eskultura Loreakustikoa	Ikasbil, Aisa			
13:00 - 13:30	XARE Sozialak	EHU robotika erakustaldia	Ilargia zure eskuetan	11 itzulpen			
13:30 - 14:00			Hitza				
16:00 - 16:30	Standak	Euskara Sare sozialetan erabiltzeko irizpideak	Reactable	Gaztezulo bideo-lehiaketa	Bideo jartzaile VJ tailerra (1/2)		Install party
16:30 - 17:00	DJ emanaldia		Twitter grafikoa / soinu twitterra				
17:00 - 17:30		Internet bidezko erosketa molde berriak	Fotoma(ra)toia				
17:30 - 18:00	Mapping		Eskultura Loreakustikoa	Nontzefilmak	Sare sozialak		Software itzulpena
18:00 - 18:30							
18:30 - 19:00	Berria.info	Euskararen erronkak IKTetan	Ilargia zure eskuetan	Seitrack. By Elurmaluta			
19:00 - 19:30							
19:30 - 20:00	XARE Sozialak		Hitza				

Mahai-inguruak eta hitzaldiak · Multimedia instalazioak · E-gitasmoak · Ikus-entzunezkoak · Ikastaroak · Robot erakustaldia · Standak · XARE zuzenean sarean · Musika

Ordutegia / Larunbata 12.11.24

	0 Aretoa	1 Aretoa	2 Aretoa	3 Aretoa	4 Aretoa	6-7 Aretoa	8-9 Aretoa
11:00 - 11:30	Standak		Reactable				
11:30 - 12:00	DJ emanaldia		Twitter grafikoa / soinu twitterra	Kaixo app, Elhuyar hiztegiak app	Soinu edizio digital tailerra (2/2)		Install party
12:00 - 12:30	Mapping		Fotoma(ra)toia	Overclock, Guifi.net		Ordenagailua euskaratu	
12:30 - 13:00	Berria.info		Eskultura Loreakustikoa	Unibertsitatea.net, Deskontu.com			
13:00 - 13:30	XARE Sozialak		Ilargia zure eskuetan	Hitzapasa, Apalabra-dos, Gaurko Hitza			
13:30 - 14:00			Hitza				
16:00 - 16:30	Standak	Euskal komunikabideak. Negozio formulak interneten	Reactable	Gaztezulo bideo-lehiaketa. Sari banaketa	Bideo jartzaile VJ tailerra (2/2)		Install party
16:30 - 17:00	DJ emanaldia		Twitter grafikoa / soinu twitterra				
17:00 - 17:30			Fotoma(ra)toia				
17:30 - 18:00	Mapping		Eskultura Loreakustikoa	RIP Remix Manifesto Filma			
18:00 - 18:30		Harremanak online			Sare sozialak		Software itzulpena
18:30 - 19:00	Berria.info		Ilargia zure eskuetan				
19:00 - 19:30	XARE Sozialak		Hitza				
19:30 - 20:00							

Mahai-inguruak eta hitzaldiak · Multimedia instalazioak · E-gitasmoak · Ikus-entzunezkoak · Ikastaroak · Robot erakustaldia · Standak · XARE zuzenean sarean · Musika

Ostirala 12.11.23 / 11:00 / 1 Aretoa

Babesle, lagun eta partaideek elkarrekin irekiko dituzte XAREren ateak. Azoka, abentura ireki eta partehartzaile berri honen hasiera besterik ez da.

Bat egin.

#Zabaldu XAREa!



Geoff Muncey. PIAS UK

"Iraultza digitalak musikagintzan eragindako lurrikara eta irekitako bide berriak"

Ostirala 12.11.23 / 11:30 / 1 Aretoa

Moderatzailea: Forki.

Musikagintza da Internetek hankaz gora jarri zuen lehen sektorea, baina astindua eman bezain laster, aukera berriak eskaini dizkio, promoziorako, dibulgaziorako, trukaketarako, sorkuntzarako... Honetaz guztiaz mintzatuko da PIAS diskoetxeko Erresuma Batuko zuzendari Geoff Muncey.

Luzea da Munceyk musikaren esparruan egin duen ibilbidea. 1983an estreinatu zen Pinnacle Records-en eta, harrez geroztik, askotariko diskoetxetan aritu da kudeaketa eta promozio lanetan. Besteak beste, 90eko hamarkadan, Björk musikari islandiarra ezagutzera emateko kanpainetan lan egin zuen, eta PIAS-en hasi baino lehen hamar urte luze eman zituen Fabric Records-en.

PIASek mundu guztiko 100 diskoetxe baino gehiago ordezkatzen ditu. Besteak beste, Arctic Monkeys, Placebo, Oasis, White Stripes, Animal Collective, Grace Jones edo We Are Scientists musika taldeekin egiten du lan.

Txerra Rodriguez. EMUN

"Sarean, enpresek zelan jokatu beharko lukete hizkuntzekin?"

Ostirala 12.11.23 / 16:00 / 1 Aretoa

Sarean enpresek (edo elkarteek, edo entitateek) hizkuntzekin nola jokatu erabaki behar dute lehen-lehenik. Erabakia hartu ondoren, hizkuntz bat baino gehiago kudeatu behar badute, hainbat irizpideren arabera jokatu beharko lukete. Hizkuntza erabilerarako proposamen batzuk egingo ditu Txerra Rodriguezek, beti ere euskararen inpaktua handiagoa izan dadin enpresa horien sareko erabileran.

EMUNeko teknikari eta bertako *Lantalan* blogaren kudeatzailea da Txerra Rodriguez. Garaigoikoa soziolinguistikari buruzko blogaren sortzaile eta arduraduna da. Besteak beste, *BAT* aldizkariaren eta *Soziolinguistikaz* berripaperaren jarraitzaile eta dibulgatzailea da bere blogaren bitartez.

Internet bidezko erosketa molde berriak.

Ostirala 12.11.23 / 17:00 / 1 Aretoa

Internetek gure kontsumitzeko ohitura eta moduak aldatu ditu. Salerosketa molde berriak erronka berriak (ziurtasun neurriak, bilatzaileetan posizionamendua, publizitate estrategiak,..) ekarri ditu.

Txomin Jauregi. Deskontu.com

Joxean Zubiaurre. Dastatu.com

Mahai-inguruak eta Hitzaldiak

Euskararen erronkak IKTetan

Ostirala 12. 11.23 / 18:30 / 1 Aretoa

IKT-etan eta sarean, hizkuntza gutxi batzuk ari dira nagusitzen. Euskarak zein toki du errealitate berri honetan? Euskara sustatzeko estrategiak garatzeko zer egin behar da? Nola egokitu euskara teknologia berrietara? Galdera hauei eta beste askori erantzuna ematen saiatuko dira mahai inguruko parte hartzaileak.

Maite Goñi. Euskaljakintza

Gorka Julio Hurtado. Talaios

Moderatzailea: Patxi Gaztelumendi

Euskal Komunikabideak. Negozio formulak Interneten.

Larunbata 12.11.24 / 16:00 /1 Aretoa

Komunikazioa gizarte modernoaren oinarrietako bat bihurtu da, eta IKTen erabilpenaren eraginez informazioa iturri anitzetatik eta bide ezberdinetatik jasotzen dugu berehala. Komunikabideek IKTek eskaintzen dituzten baliabideak probestu dituzte euren informazioa bide eta molde ezberdinez irakurleei eskaintzeko. Irakurleak, ordea, ordainpeko paperezko formatuak alboratuz doaz sare bidezko doako aukeren alde eginez.

Hainbat euskal komunikabideetako ordezkariak sarean jorratu beharreko negozio formulen inguruan arituko dira.

Gorka Bereziartua. Argia

Agurtzane Gomez. Gaztezulo

Joxe Rojas. Tokikom

Pello Urzelai. Berria

Mahai-inguruak eta Hitzaldiak

Harremanak online

Larunbata 12.11.24 / 18:00 / 1 Aretoa

IKT-ak giza harremanetan duten eragina saihestezina da. Eta bizitzaren beste alorretan bezalaxe, erabilpen zentzudun baten eta adikzioaren arteko mugak lausoak izaten dira. Sareak sexuaz gozatzeko moduari nola eragin dion eta harremanak sortu eta garatzeko izan duen garrantziaz hitz egingo da besteak beste mahai inguru honetan.

Iñigo Arandia. kaixomaitia.com

Igone Fdez Mariezkurrena. Gaztezulo

Iñaki Olaizola. Pittilingorri

Kizkitza Arozena. Sexologoa

#zabaldu XAREa!

Ostirala 12.11.23 / 11:00 -14:00 & 16:00 - 20:00 / 2 Aretoa
Larunbata 12.11.24 / 11:00 -14:00 & 16:00 - 20:00 / 2 Aretoa

Reactable

Björk musikariak ezagutzera eman zuen musika mahai instrumentua guztion eskura izango da. Hala, hamar laguneko taldeetan ordu erdi inguruko saioetan parte hartzeko aukera egongo da. Teknikari batek oinarrizko azalpenak emango dizkie bisitariei, hauek musika-mahaia beren kabuz proba dezaten.

Instrumentu elektronikoa da **Reactable**, eta interfaze iraultzaile bati esker, musika esperientzia ukigai eta bisuala bilakatzen du. Funtsean, musika-mahai bat da, gainean metakrilatozko objektu batzuk jarriz, beraien kokapena aldatuz eta horiei mugimendua eraginez sortzen da soinua. Manipulatutako musika ikusgai ageri da azalean. Musika elektronikoak soinua infinitura arte manipulatzea ahalbidetzen du eta hori da **Reactable**k lortzen duena. Pertsona batek baino gehiagok erabil dezake aldi berean objektuak mahai gainean jarri eta mugituz.

Twitter Jokoa

Interzonas & Eragin.com

Bisitariak erabiltzen dituen *hashtag*en arabera txoria edo arranoa mugituko dira. Bakoitzak erabakiko du txoriaren edo arranoaren alde jarri nahi duen. Azkar twitteatzeko abilezia neurtuko da. Hala, zenbat eta azkarrago twitteatu, azkarrago mugituko dira txoria eta arranoa. Arranoak txoria harrapatzea nahi du. Txoriak, ordea, etxera salbu iristea da lortu nahi duena.

Fotoma(ra)toia.

Interzonas & Eragin.com

Pantaila ukigarri bat bisitariaren eskura. Hondoak aukeragai. Nork bere buruari argazkia ateratzeko parada. Ondoren, irudia, mailez, nahi diren helbideetara bidali ahal izango da.

Eskultura Loreakustikoa

Tunipanea

Materiale birziklatuaz egindako instrumentu musikal elektronikoa eta landareen arteko sinbiosia inoiz irudikatu ahal duzu? Batu hori giza gorputzak elektrizitatea barreiatzeko duen ahalmenarekin eta **Loreakustikoa** izango duzu aurrean.

Ilargia zure eskuetan

Patxi Araujo

Ba ote da inoiz ilargia eskuetan izatea amestu ez duenik? Instalazio honen bidez eskuetan ez, baina eskuekin ilargia maneiatzeko aukera izango duzu.

Kinect kamara eta vvvv softwarea erabiliz zure eskuen mugimenduak Ilargiaren mugimenduarekin zuzenean erlazionatzen dira.

Hitza. MALAB Kultura-elkartea.

Etengabe aldatzen doan instalazio biziduna da **Hitza**. Estruktura higikor bat da funtsean. Bertan, gune soinuduna sortuko duten fitxak zintzilikatzen dira. Jolasa da, eta jolasa izanik, askatasun gune batekin egingo dute topo bisitariek. Tentagarria irudituko zaie eta, nahitaez, jolasean parte hartuko dute. Pertsona bakoitzak soinu edo hitz bat fitxa batean grabatuko du. Fitxa hori estruktura higikorreko edozein tokitan ipiniko du eta bere grabazioaren emaitza entzun ahal izango da. Hala, gune soinudunak sortuko dira grabatutako hitz, zarata eta soinuekin. Agian esaldi edo doinuak entzungo dira. Ziurrenik zarata eta kaosa.

Mapping

Elurmaluta



Norbaitek esan zuen **Mapping**a irudiak objektu eta eraikinen gainean proiektatu eta hauei bizia ematearen artea dela. Proiekzio pantailak eraldatu dira, eta gaur egun edozer gauza izan daiteke proiektore baten xedea. Hala, proiekzioa azalera ezberdinetara moldatuz, istorio ezberdin asko azalarazten dira.

Bilaketa eleanitza

Maddalen Lope de Lacalle.

Elhuyar, Hizkuntza eta Teknologia

Ostirala 12.11.23 / 11:30 / 3 Aretoa

IR (Information Retrieval edo Informazio-Bilaketa) eduki digitalen kudeaketa eta bilaketa errazteaz arduratzen da. Bu teknologiaz baliatuz, Eleazkari bilatzaile eleanitza eta Dokusare dokumentu-erlazionatzaile eleanitza inplementatu dituzte Zientzia.net atarian.

Berbatek

Igor Leturia.

Elhuyar, Hizkuntza eta Teknologia. I+G arduraduna

Ostirala 12.11.23 / 11:45 / 3 Aretoa

Elhuyar Fundazioa, EHUko IXA eta Aholab ikerketa-taldeak eta Vicomtech eta Robotiker-Tecnalia teknologia-zentroak euskararentzako hizkuntza-, ahots- eta multimedia-teknologietan ikertzen aritu dira. Epe laburrean itzulpenen, edukien eta irakaskuntzaren sektorean aplikatu daitezkeen demo oso interesgarri batzuk ere egin dituzte..

11 itzulpen Aritz Branton

Ostirala 12.11.23 / 13:00 / 3 Aretoa

Euskal Herrian gehien erabiltzen diren hizkuntzen arteko itzulpenak eta zuzenketak egiten ditu 11itzulpenek. Teknologia berrietan oinarritzen du bere antolakuntza kalitatezko zerbitzu azkar baten mesedean. Testu profesionalez gain, Hamaika Books izenarekin literatura plazaratzen hasi da (lehenengo liburua, Paul Gallico-ren "Elur-antzara").

Kxo! Ikasi euskara / Aprende euskera / Learn Basque / Apprenez le basque

Josu Aztiria. Elhuyar, Hizkuntza eta Teknologia saileko arduraduna.

Larunbata 12.11.24 / 11:30 / 3 Aretoa

Euskara ikasteko smartphoneetarako sortutako aplikazioa da. Erabiltzaileak gaztelaniaz, ingelesez nahiz frantsesez nabigatu ahal izango du bertan. Aplikazio honek euskararako lehen hurbiltzea izan nahi du, eta bere helburua da euskaraz ezer ez dakienari edo euskara apur bat dakienari ohiko egoeratan euskaraz komunikatzeko tresnak eskaintzea.

Elhuyar Hiztegiak smartphonetan

Elena Garcia. Elhuyar, Hizkuntza eta Teknologia saileko arduraduna.

Larunbata 12.11.24 / 11:45 / 3 Aretoa

Hiztegiek eboluzio itzela jasan dute azken hamarkadetan. Paperezko bertsioetatik Interneteko bertsioetara pasatzea aldaketa nabarmena izan bazen ere, egun, smartphoneko bertsioekin hiztegi guztiak poltsikoan eraman ditzakegu: Elhuyar Euskara-Gaztelania Hiztegia, Euskara-Frantsesa Hiztegia, Euskara-Ingelesa Hiztegia, Sinonimoen Hiztegia eta Ikaslearen Hiztegia.

e-lkartu plataforma

Overclock Axular Taldea

Larunbata 12.11.24 / 12:00 / 3 Aretoa

Adineko jendeak bere egunerokotasunean izan ditzakeen arazo teknologiko sinpleak adituen laguntzarekin ebazteko egitasmoa.

"Zer non ikasi" eta "Iragarkien ohola" aplikazioak

EHU. Unibertsitatea.net

Larunbata 12.11.24 / 12:30 / 3 Aretoa

"Zer, non ikasi" Euskal Herriko unibertsitateen graduko titulazioen bilgunea da. Bertan, intereseko ikasketak bilatu daiteke.

"Iragarkien ohola" post-it interaktiboa da. Honen bidez,iragarki laburrak idatzi eta zabaldu daitezke.

Deskontu.com Txomin Jauregi

Larunbata 12.11.24 / 12:45 / 3 Aretoa

Deskontu.com egunero produktu edo zerbitzu baten eskaintza berri bat argitaratzen duen webgunea da. Eskaintzok, gutxienez %40ko beherapena dute; hau da, produktu edo zerbitzu hori dendan baino merkeago lor daiteke webgunean. Salmenta epea 24 ordukoa da, eta, eskaintza bakoitzaren baldintzen arabera, hilabete bat, bi edo hiruko epea du erosleak hura kontsumitzeko. Ongi eginez gero, *win-win-win* plataforma dat da.

2010eko Azaroan argitaratu zuten lehen eskaintza eta ordutik hona 35.000 erabiltzaile eta 45.000 salmenta izan dituzte.

Gaurko hitza, Hitzapasa, Apalabrados

Maite Goñi. Euskaljakintza

Larunbata 12.11.24 / 13:00 / 3 Aretoa

Euskarazko hiztegia aberasteko jokoak, sarean eta dohain topa daitezkeenak. Komunitatea sortzeko ere baliagarriak izan daitezke. Horretaz gain, garrantzitsua da ikasle eta irakasleen eskura ipintzea joko pertsonalizatuak sortzeko aukera. Hori da, besteak beste, Gaurko hitza plataformaren helburua: sareko euskarazko edukiak hedatu, hitz-jokoak sortuz.

Honako E-gitasmo hauek ere aurkeztuko dira:

- **eitb.com:** eitb app.
- **Ikasbil:** Habe-ren ataria euskara ikasteko.
- **AISA:** etorkinentzat euskara ikastaroak eta irudizko hiztegia online.
- **armiarma.com:** Sarean dagoen euskal literaturako direktorioa.
- **guifi.net:** telekomunikazio sare ireki, libre eta neutrala da.

Gaztezulo III. Bideo Lehiaketa

Ostirala 12.11.23 / 16:00 / 3 Aretoa. Bideo guztien emanaldia
Larunbata 12.11.24 / 16:00 / 3 Aretoa. Sari banaketa

Zertan ematen duzu denbora? Zerk betetzen zaitu? Zerk ematen dizu bizia? Galdera hauei erantzun behar izan diete Gaztezulo III. Bideo Lehiaketako partehartzaileek beren ekarpenekin. Film guztiak ostiralean ikusi ahal izango dira eta larunbatean sari banaketari ekingo zaio.

Ikus-entzunezkoen alorreko profesionalek osatutako epaimahaiak –Anjel Alkain zuzendaria, Garbi Losada aktorea, Sara Cozar aktorea, Anartz Zuazua zuzendaria eta Imanol Rayo zuzendaria– bideo onena eta bigarren onena ezagutzera emango ditu. Gainera, bozka gehien biltzen dituen lanak Ikuslearen Saria jasoko du.

Nontzefilmak

Ostirala 12.11.23 / 18:00 / 3 Aretoa

Nontzefilmak Nontzeberri webguneak urtero abiatzen duen Internet bidezko zinema eta animazioko film laburren lehiaketa da. Xare teknologia berrien lehen euskal azokan, lehiaketaren azken edizioetan jasotako euskarazko lanen emanaldia egingo da.

RIP! A Remix Manifesto

Brett Taylor. Euskarazko azpitituluekin

Larunbata 12.11.24 / 17:30 / 3 Aretoa

2008 urtean zuzendutako dokumental honetan, Brett Taylor ziberaktibistak egile eskubideak esploratzen ditu ikuspegi polemiko batetik abiatuta. Hala, lau puntutan oinarritutako manifestua kaleratzen du:

1. Kultura beti eraiki zen iraganean oinarrituta,
2. iragana etorkizuna kontrolatzen saiatzen da beti,
3. etorkizuna askatasun gutxiago edukitzen ari da,
4. gizarte askeak eraikitzeko kontrola iraganetik mugatzea beharrezkoa da.

Beste banda batzuen sampler-etan oinarritutako abestiak sortzen dituen Girl Talk musikaria da honetan protagonista. Besteak beste, Creative Commons-eko fundatzaile Lawrence Lessig, Gilberto Gil edo Cory Doctorow pop kulturaren kritikaria parte hartzen dute.

Ikus-entzunezkoak

Sei Track

Elurmaluta

Ostirala 12.11.23 / 19:00 / 3 Aretoa



Ez ohiko formatu batean aurkezten zaigu ikus-entzunezko zuzeneko hau. Inongo aurre muntaiarik gabe, zati txikiak erabiliz, zuzenean eraikitzen dira 6 track edo pieza ezberdinak.

Beti ere, zuzenezkoak ematen duen ustekabe eta inprobisazioa baliatuz, Elurmalutak sentsazioen ibilaldi honetan gidatzen gaitu bide ilun zein alaietatik.

Soinu edizio eta DJ digitala

Makala

Ostirala 12.11.23 / 11:30 / 4 Aretoa (1/2)
Larunbata 12.11.24 / 11:30 / 4 Aretoa (2/2)

Sorkuntza musikal digitaleko (musika elektronikoa, hip hop...) eta disc-jockeyen lanabes berrien (Virtual Dj, Traktor, Serato...) esparruan teknologia berriek eskaintzen dituzten aukeren berrikuspen orokorra egitea da tailer honen xedea.

Euskarri informatiko berriak (portatilak, tabletak, smartphonak...) app eta software egokiekin kargatuz gero, lan egiteko erreminta baliotsuak bilakatu daitezke.

Plaza mugatuak. Izena eman **www.xare.eu** webgunean edo azokan berean, sarrerako informazio puntuan. Ekarri zure ordenagailua.

Bideo jartzaile oinarrizko ikastaroa

VJ Txo!?

Ostirala 12.11.23 / 16:00 / 4 Aretoa (1/2)
Larunbata 12.11.24 / 16:00 / 4 Aretoa (2/2)



Bideo jartzaileek erabiltzen ohi dituzten teknikak jorratuko dira, ikuspegi teoriko zein praktiko batetik. Hala, erabiltzen diren software eta hardware ezberdinak azalduko dira, edukiak sortzeko eta zuzenekoan aritzeko erabil daitezkeen lanabesak aztertuko direlarik.

Plaza mugatuak. Izena eman **www.xare.eu** webgunean edo azokan berean, sarrerako informazio puntuan. Ekarri zure ordenagailua.

Sare sozialen analisia

Gorka Julio. Talaios

Ostirala 12.11.23 / 18:00 / 4 Aretoa
Larunbata 12.11.24 / 18:00 / 4 Aretoa

Sare sozialen analisia, sarea osatzen duten nodoen eta hauen arteko harremanen azterketan oinarritutako arloa da. Egun, eta Interneteko sare sozialei esker, datu analisi mota hau modu errazagoan gure interesetarako baliatu dezakegu.

Tailerrean sare sozialen analisian oinarrizko kontzeptuak aztertuko dira, eta Twitter-en sortzen ditugun sareak aztertuz eramango dira praktikara.

Plaza mugatuak. Izena eman **www.xare.eu** webgunean edo azokan berean, sarrerako informazio puntuan. Ekarri zure ordenagailua.

Ipini zure ordenagailua euskaraz

Elhuyar hizkuntza eta teknologia

Ostirala 12.11.23 / 12:00 / 6-7 Aretoak
Larunbata 12.11.24 / 12:00 / 6-7 Aretoak

Ikastaro honen helburua, bakoitzak bere ordenagailuko sistema eragilea eta aplikazioak euskaraz jartzen ikastea da. Honetaz gain, euskaraz lan egiteko hainbat baliabide aztertuko dira.

Plaza mugatuak. Izena eman **www.xare.eu** webgunean edo azokan berean, sarrerako informazio puntuan. Ekarri zure ordenagailua.

Install party

EHUko Itsas taldea

Ostirala 12.11.23 / 11:30 & 16:00 / 8-9 Aretoak
Larunbata 12.11.24 / 11:30 & 16:00 / 8-9 Aretoak



LINUX ordenagailua euskaraz erabiltzea hobekien bermatzen duen sistema eragilea da. Sistemaz gain programa asko daude eskuragarri euskaraz lan egin ahal izateko.

Egun LINUX banaketa hedatuena Ubuntu da, erabiltzeko oso erraza. Ubunturen azken bertsioa (12.10) probatzeko aukera egongo da mintegi sinple eta informal honetan. Bertan, sistema eragile honen abantailak eta oinarrizko erabilera azaltzeaz gain, parte-hartzaileei Ubunturen instalazioan eta konfigurazioan lagunduko zaie.

Plaza mugatuak. Izena eman **www.xare.eu** webgunean edo azokan berean, sarrerako informazio puntuan. Ekarri zure ordenagailua.

Software itzulpen saioa

Librezale

Ostirala 12.11.23 / 18:00 / 8-9 Aretoak
Larunbata 12.11.24 / 18:00 / 8-9 Aretoak

Software libreak aukera ezin hobea eskaintzen du gure hizkuntza teknologia berrietara ekartzeko. Softwarea itzultzeko ditugun zenbait aukera laburki aztertu eta taldean softwarea euskaratuko da. Parte hartzeko ez da ezagutza teknikorik behar, euskara eta ingelesa ulertzearekin nahikoa izanik.

Plaza mugatuak. Izena eman **www.xare.eu** webgunean edo azokan berean, sarrerako informazio puntuan. Ekarri zure ordenagailua.



EHUko Robotika eta Sistema Autonomoak taldea

Ostirala 12.11.23 / 13:00 / 1 Aretoa

Hiru robot zuzenean ezagutzeko aukera:

- **Robotinho-Kinect:** zeinu bidez gidatutako robota.

- **Galtxagorri:** oinarrizko nabigazio-gaitasuna dauka, eta euskaraz elkarreragiteko gai da. Hala, mezuak ahoz jaso eta interpretatu ditzake, eta hitz egiteko gai da.

- **Bertsolari birtuala:** robotika eta Hizkuntza-teknologiak uztartu nahi izan dira proiektu honekin, bertsolarien gisan, hizkuntzarekin jolasteko gai den robot-bertsolaria garatuz.



Ostirala 12.11.23 & Larunbata 12.11.24 /
11:00-14:00 & 16.00-20.00 / 0 Aretoa

.berria.info

Berria egunkariko kazetariek informazio eguneratua Interneten argitaratuko dute. Zuzenean beren lana ikusteko parada egongo da. Emaitzak ez ezik, prozesuaren urrats guztiak gertutik ezagutu ahal izango dira.

.XARE sozialak

XAREko kide batek zuzenean eguneratuko du azokaren martxa Facebook eta Twitter-eko profiletan. Berezkotasuna nagusi den formatu hauetan testu informalak eta irudiak etengabe argitaratzen dira, erabiltzaileen feedback-a berehala jasoz.

.Librean

Librean enpresako kideek XARE azokaren martxa bideostreaming bidez emitituko dute **xare.eu** webgunean.

*DJ emanaldia

Makala & DJ Arka & DJ Dubben

Ostirala & Larunbata / 0 Aretoa

Makala ezizenarekin ezagunagoa den Mikel Unzurrunzagak 20 urte daramatza musikaren munduan murgilduta. Besteak beste, areto eta irratsaioetako disc-jockey, musikari eta ekoizle gisa aritu da lanean. Berak lantzen duen musika oso eklektikoa da, beti ere soinu bero eta tropikalak jorratzen dituelarik: *boogaloo, cumbia, latin, gipsy rumba, afro, soul, funk, swing, jazz* eta *ska* doinuak nahastuaz. Azken finean dantzatu eta ondo pasatzeko musika da: *Happy Sound!*

DJArkak urteak eman ditu kontzertuen promotore gisa lanean. Egun, *Gaztea, Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Berria* eta *Entzun* komunikabideetako ohiko kolaboratzaile da. Gainera, Europako DJ ezberdinekin festak eta emanaldiak antolatzen ditu.

HP bezala ere ezaguna den **DJ Dubben** Berlinetik erritmo zirraragarrienak ekarriko ditu. Brasilgo musika zahar eta berriak, *funk, forrô, funk dantza,tecno brega, MPB, reggae bits, latin bits* edo *mash-up* izenekoak beste batzuen artean.

*Kontzertua

ILLBiLLy HiTEC (Berlin)

Ostirala 12.11.24 / 20:00 / Le Bukowski (Egia kalea, 18)

iLLBiLLY HiTEC *reggae*, *dubstep*, *elektro* eta *breakbeat* estiloak nahastuz sortu den reggae elektronikoa egiten duen talde berlindar bat da. Zuzeneko perkusio eta ahotsak sanpleo eta ñabardura elektronikoekin nahastuta Alemaniako promesa bihurtzen du estilo honi dagokionez.

Longfingah abeslariak gidatuko du emanaldia. Longfingah Alemaniako reggae abeslari talentudunetarikoa da. Besteak beste, Dubmatix edo Mungos HiFi musikariekin egin du lan.

Bad Sound System (Irun)

Ostirala 12.11.24 / 20:00 / Le Bukowski (Egia kalea, 18)

Euskal Herriko *Hip-hop* eta *reggae*aren erreferentzia bat, **Bad Sound System** taldea kolektibo musikal gisa funtzionatzen du. Hala, zuzeneko emanaldiak eskaintzeaz gain, jaialdi, dj sesio edo ekimen ezberdinetan parte hartzen du. Bertako eta atzerriko musikari ezberdinekin egin du lan (Asian Dub Foundation, Macka B, Toots and the Maytals, Freddie McGregor, Fermin Muguruza, Parental Advisory Crew...), eta proposamen musikal berrietara irekia azaldu da beti.

*Kontzertua

JupiterJon (Irun)

Larunbata 12.11.24 / 20:00 / Le Bukowski (Egia kalea, 18)

Bidehuts zigilupean kaleratutako *Pleistozenoko Astelehenak* diskoa aurkeztuko du talde irundarrak. Nerea Garridok (gitarra), Joxe Caballerok (baxua), Aida Torresek (bateria, ahotsa) eta Baxi Ubedak (gitarra eta ahotsa) osaturiko laukoa Bidasoa aldean azken urteotan jaio den ekosistema bitxi horretatik sortu da.

Beste taldetan ibiliak guztiak (Akazauzte, Bukaera, Lisabö, Cristal), beren izaera basatiena ahaztu gabe, arima, esentzia eta muinak ikuslegoari eskaintzeko gai dira musikariak.

*Global Funk Party

DJ Dubben & Makala

Larunbata 12.11.24 / 23:00 / Le Bukowski (Egia kalea, 18)

Berlingo DJ Dubbenek eta Zarauzko Makalak izango dute azokari agur esateko ardura. Hobekien ezagutzen duten modura egingo dute. Hala, saio berezia eskainiko diete larunbat gauean Le Bukowskira bertaratzen direnei. Dantzatzeko eta ongi pasatzeko gogoak dira eraman beharrekoak.

Festa Arkak eta Makalak sortutako Global Funk kolektiboaren eskutik ospatuko da. 2008eko udaberrian "Weekend Parties" izeneko ekimenari hasiera eman zioten eta, harrez geroztik, hilabetean behin mundu guztiko dj eta artistak gonbidatzen dituzte Donostia, Bilbo edo Gasteizko taberna eta klubetan emanaldiak eskaintzera. *Let's dance in Baskenland!*

Antolatzailea:

Komunikabide babesleak:

Babesleak:

Laguntzaileak:

www.xare.eu